

Autore eta editoreen elkarte profesionalen proiektuetarako diru laguntzen oinarriak**2019ko deialdia**

Deialdi honen guztizko kopurua 150.000 euro da, eta 10.000 euro gehienez (zergak barne) elkarteko edo elkarten federazioko

Lehenengoa: eskatzaileak

SGAE Fundazioak honako eskaera hauek aztertuko ditu: elkarteek edo elkarten federazioek egindako diru-laguntzen eskaerak, musikaren autore edo editoreak biltzen badituzte, edota horien interes pertsonalak ordezkatzan badituzte SGAEk lan egiten duen esparruetan (musika, arte eszenikoak eta ikus-entzunezkoak).

Honako baldintza hauek bete behar dituzte proiektuak garatzeko diru-laguntzak eskatzen dituzten elkarteek edo federazioek:

1. Legeari jarraituz egon behar dira erata elkarre edo elkarten federazio gisa, 2018ko urtarrilaren 1aren aurretik.
2. 2019ko apirilaren 10aren aurretik gutxienez hamabi hilabeteko jardura izatea, eta hori dokumentuen bidez frogatu ahal izatea.
3. SGAErekin saldo zordunik ez izatea, hala balegokio.

Elkarre edo elkarten federazio batek, deialdi honetan, hainbat proiektuetarako diru-laguntzak jaso ahalko ditu, baina emango zaion guztizko zenbatekoa ez da 10.000 euro baino handiagoa izango (zergak barne).

Elkarre edo federazio batek proiektu bat baino gehiago aurkezten badu, eskaerak banaka egin beharko ditu, proiektu bakoitzerako bana.

Bigarrena: proiektuen tipologia

Deialdi honetan parte hartu ahalko dute eskatzaileek bidalitako proiektuek, irizpide hauen lehenengo klausula betetzen badute, eta honako ezaugarri hauek dituzten proiektuak:

1. Deialdi honetan diru-laguntzak jaso ahal dituzten proiektuek honako helburu hauetakoren bat izan behar dute:
 - a. Autoreen eta haien obren promozioa. Kreaio berriaren sustapena
 - b. Sektorearen hobekuntzara bideratuta dauden ikasketen formakuntza eta garapena (profesionalizazioa, kreaio-teknikak, sektorearen estruktura, finantziarioa, politika kulturalak eta abar)
 - c. Gizarte-bazterketa arriskuan dauden autoreentzako edo autoreen kolektiboentzako asistentzia-ekintzak.
2. Deialdi honetako proiektuak 2019ko urtarrilaren 1aren ostean hasitakoak izan behar dira, eta 2020eko martxoaren 31a baino lehen amaitu beharko dira.

Deialdian 150.000 euro emango dira guztira, honela banatuta:

- 70.000 euro musikaren esparruko elkarre edo elkarten federazioentzat.
- 47.000 euro ikus-entzunezkoen esparruko elkarre edo elkarten federazioentzat.
- 33.000 euro arte eszenikoen esparruko elkarre edo elkarten federazioentzat.

Zeharkako izaera duten elkarten edo elkarten federazioen proiektuak badira, horien kopuruak proportzionalki esleituko dira sailen artean.

Proiektuak deskribapen batekin eta ekintzen datekin eta tokiekin aurkeztu beharko dira. Proiektuekin batera bideragarritasuna frogatzen duten dokumentuak aurkeztu beharko dira, eta baita proiektuaren gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuaren dokumentuak ere.

Hirugarrena: SGAE Fundazioaren ekarpena

Elkarte edo elkarten federazio bakoitzari emango zaion guztizko zenbatekoa ez da 10.000 euro baino handiago izango (zergak barne), proiektuei esleitutako zenbatekoen batuketa gisa. Era berean, proiektu batek ezin izango 10.000 euro baino gehiago jaso (zergak barne)

Laugarrena: dokumentazioa

Eskaerekin batera honako agiri hauek egon beharko dira:

1. Eskaera-inprimakia dagokion moduan beteta telematikaren bidez.
2. Elkartearen edo federazioaren IFKren kopia.
3. Elkartea edo federazioa legalki ordezkatzeko duen pertsonaren IFZren kopia.
4. 3. zenbakian adierazitako pertsonak elkartea edo federazioa legalki ordezkatzeko duela egiaztatzeko ziurtagiriak. Ondore horietarako, honako hauek aurkeztu beharko dira: erakundearen estatutuak, Elkarten Erregistroan kargua karguaren inskripzioaren ebazpena edota ahalorde-eskritura. Kargua indarrean egon behar da.
5. Aurreko urteetan elkarreak edo federazioak garatutako jarduera esanguratsuenaren laburpen txikia, bereziki 2018an garatutakoa.
6. Diru-laguntza eskatu duenaren proiektuaren deskribapena eta kronograma.
7. Gastuen eta diru-sarreraren aurrekontu zehaztua.
8. Beste erakunde batzuen parte-hartzearen ziurtagiria, hala badagokio.
9. Oraingo elkartearen edo federazioaren zuzendariak sinatutako zinpeko deklarazioa, 2019ko apirilaren 1ean dauden bazkide aktiboen zenbatekoa zehazten duena
10. Agiri gehigarriak.

Bosgarrena: ebaluazioaren irizpideak

Jasotako eskaerak ebaluatzeko honako irizpide hauek izango dira kontuan:

- a) Proiektua aurkezten duen elkartearen edo federazioaren inguruko irizpideak.
 1. Ekintzen esparrua: ekintza esparru handiena duten elkarte edo federazioak lehenetsiko dira.
 2. Ordezkarritasuna eta bazkideen zenbatekoa: ordezkarritasun edota bazkideen zenbateko handiena duten elkarte edo federazioak lehenetsiko dira.
 3. Jarduera: jarduera erregularra duten elkarreak edo federazioak lehenetsiko dira.
- b) Proiektuen inguruko irizpideak
 1. Bereziki alderdi hauek aintzat hartuko dira:
 - Autoretzaren eta gizartearen arteko harremana ematea.
 - Autorearen eskubideari buruzko pedagogia soziala sustatzea.
 - kulturarako sarbidea sustatzea.
 - Adierazpen artistiko berriak eta diziplina anitzeko proiektuak sustatzea, SGAE Fundazioak lan egiten duen errepertorioetan.

- Lankidetzaren beste instituzio eta erakunde batzuekin.
 - Autore emakumeen parte-hartzearen sustapena.
2. Proiektuaren bideragarritasun teknikoa, aurkeztutako aurrekontuen arabera.
 3. Proiektuen onuradunen zenbatekoa: helburu gisa hartzaileen zenbateko handiena duten proiektuak lehenetsiko dira.

Gainera, kontuan hartuko da proiektuak izan dezakeen oihartzun soziokulturala eta eraginkortasuna emandako bitartekoen aplikazioan, hala balegokio, diru-laguntzengatik.

Seigarrena: eskaeren aurkezpena eta epea

1. Eskaeraren inprimakia SGAE Fundazioaren webgunean egongo da eskuragarri: www.fundacionsgae.org Inprimakiaren formatu elektronikoa erabili beharko da, eta eremu guztiak bete beharko dira. SGAE Fundazioak eskaera guztiak jaso izana adieraziko du, eta falta diren agiriak jakinaraziko dizkie dokumentazio osoa aurkeztu ez dutenei. Aurkeztu beharreko dokumentazio guztia ez dagoela adierazten dieten eskatzaileek 15 eguneko gehieneko epea izango dute eskaera zuzentzeko, eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik; hau da, 2019ko ekainaren 29ko (larunbata) 24:00ak arteko epea izango dute. Eskaera adierazitako epean zuzentzen ez badute, ez da aintzat hartuko.
2. 2019ko deialdi honetarako eskaerak aurkezteko epea apirilaren 10an (asteazkena) hasiko da eta zabalik egongo da ekainean 14ko (ostirala) 24.00ak arte. Epez kanpo jasotako eskaerak ez dira onartuko.

Zazpigarrena: eskabideen prozedura eta ebazpena

1. Ebaluazio-batzorde bat arduratuko da oinarri hauetan adierazitako baldintzak betetzen dituzten eskaerak aztertzeaz eta ebaluatzeaz.
2. Batzordeak laguntzen esleipenari buruzko erabakia hartuko du, eta interesdun guztiei ebazpen horren berri emango zaie idatziz.
3. Batzordearen ebazpena ezeztatzina izango da.

Zortzigarrena: lankidetzaren gauzapena

SGAE Fundazioak eta onartutako proiektua duen eskatzaileak lankidetzaren hitzarmen berezia sinatuko dute, eta, bertan, ezinbestean agertu beharko dira agiri honetan zehaztutako oinarriak eta ondoren aipatuko dugun informazioa:

1. Alderdi bakoitzaren eskubideak eta betebeharrak.
2. Proiektua hasteko eta amaitzeko epea.
3. Esleitutako laguntzaren zenbatekoa.
4. Ordaintzeko modua.
5. Proiektuaren jarraipena (txostena, ebaluazioa eta SGAE Fundazioaren irudi korporatiboa daraman materiala eta azken memoria).
6. Laguntza honi esker SGAEen erregistratutako eta abian den lanaren berri SGAE Fundazioari ematearen aldeko konprometua.

SGAE Fundazioak laguntzaren onuradunari eskatuko dio hitzarmena formalizatzeko beharrezko dokumentazioa. Dokumentazio hori helarazteko gehieneko epea bi (2) hilabete izango da, SGAE

Fundazioak hori eskatzen duenetik. Hautatutako pertsonak ez badu dokumentazioa epe horretan helarazten, laguntza jasotzeko eskubidea galduko du. Dokumentu guztiak aldean artean sinatuko den hitzarmenaren atal bereizezina izango dira, eta ez dira itzuliko.

Halaber, SGAE Fundazioak laguntzaren onuradunari helaraziko dio aldeek sinatu beharreko hitzarmena. Onuradunak gehienez bi (2) hilabeteko epea izango du hitzarmenaren aleak sinatuta itzultzeko, laguntza kobratzeko ordainketa-agiriarekin edo fakturarekin batera (kasuaren arabera). Onuradunak hitzarmena edo ordainketarako dokumentua edo faktura aipatutako epean helarazten ez baditu, laguntza galduko du.

Elkarte edo federazio batek deialdi honetan hainbat proiekturako diru-laguntzak jasotzekotan, hitzarmen bakarra sinatuko litzateke, eta horrek honako hau erregulatuko du: SGAE Fundazioaren eta elkarte edo federazioaren arteko harremanak aukeratutako proiektuen garapenerako.

Bederatzigarrena: norberaren datuak isilpean gorde eta babestu beharra

Proiektuaren kudeaketan aldeek ematen duten informazio guztia konfidentziala da eta ezingo zaie hirugarrenei ezagutzera eman. Era berean, ezingo da erabili ezarritako helburuetarako ez bada, indarreko legeriak zehaztutako salbuespenetarako ez ezik.

Eskatzaileak borondatez emandako datu pertsonalak SGAE Fundazioaren ardurapeko fitxategi batean gordeko dira, eta laguntzen deialdi honetan eskatzailearen parte-hartzea kudeatzeko erabiliko dira bakarrik. Datu pertsonalen babeserako oinarritzko eskubidearen titularrak eskubidea du datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko, erabilera mugatzeko, beste norabait eramateko eta horien aurka egiteko, baita banakako erabaki automatizatuen xede ez izateko ere. Horiek erabiltzeko helbide honetara idatz dezake: SGAE Fundazioa, zerbitzu juridikoen arreta, Bárbara de Braganza kalea 7, 28004 Madril. Idazkiak izena, abizena eta baliatutako eskubidea adierazi beharko ditu, eta NAN/AIZ edo pasaportearen kopiarekin batera aurkeztu beharko da. SGAE Fundazioak interesdunak emandako datuak egiazkotzat joko ditu eta usteko du haren egungo egoerarekin bat datozela. Interesduna behartuta dago aldaketak jakinaraztera, horiek gertatzen diren mementotik aurrera.

Hamargarrena: arau orokorrak

1. Eskatzaileak SGAE Fundazioaren logoa sartuko du proiektuaren sustapenean, hau da, publizitatean, karteletan, katalogoetan, liburuxketan eta antzeko beste batzuetan.
2. Eskaera egiteak esan nahi du eskatzaileak dokumentu honetan ezarritako baldintzak eta oinarriak onartzen dituela eta baimena ematen dio SGAE Fundazioari, emandako laguntza Memorietan eta gainontzeko argitalpenetan zabaltzeko. Aipatutako arauetan adierazitako baldintzaren bat bete ezean, SGAE Fundazioak ez du esleitutako laguntza ordainduko. Dagoeneko ordaindu badu, hautatutakoak zenbateko hori itzuli beharko du, SGAE Fundazioak baldintzaren bat bete ez duela jakinarazten dion mementotik aurrera.
3. Eskatzaileak ez dio SGAE Fundazioari inolako erantzukizunik egotziko, proiektua egiteko eta garatzeko orduan indarreko legeria edonola urratzen duenean.

Informazio gehiago: informacion@fundacionsgae.org